

# HERRERA'TAR ZAAR BATEN BIZIKASKIZUNAK

---

Andoni KORTAJARENA

*En este trabajo cuyo título se podría traducir como "Vivencias de un vetusto herreratarra", su autor Andoni Kortajarena, desde la perspectiva que le ofrece su dilatada vida, nos dibuja un conjunto de cuadros de nuestro entrañable barrio de Herrera escritos a partir de su propia experiencia y completados con un importante esfuerzo de investigación principalmente en hemerotecas. Los diferentes cuadros que describe cuentan con los siguientes títulos: Panorámica de Herrera hace 160 años; Trágico suceso que influyó en el desarrollo de Herrera; Herrera centro de comunicaciones; Jolastokieta; Trágica riada; ¿Cómo se vivía en Herrera en nuestros tiempos?; Un tranvía que quedó colgado; Sidrerías de aquellos tiempos. El contenido de este artículo recoge en euskara la conferencia que el autor dió en los locales de la Parroquia San Luis Gonzaga el 17 de junio de 1994 con motivo de la exposición "Historia de Herrera en Fotografías". Ortografiari dagokionez egilearen gogo eta iritziak erabat errespetatu ditugu.*

Asteko, lurralde oni dagozkion zeaztasunak, batzuk bizi izanak eta besteak irudituak, aurkeztu nai nituzke, eta era berean, Herrera deitzen diogun auzotegi au, joan zan mendearen erdi-aldian nolakoa izango zan azertu eta bizi geraneko lenengo amarkadetan nalakoa ezagutu genuan agertu.

Gaurko egunean etxadi au dan bezalakoa, zatikatu daiteken "maketa" bat egingo ba'genu, eta azken mende t'erdian eraiki diran era guztietako etxe, bide, eta baita egin diran aldaketak ere, zatika- zatika eta poliki-poliki askatzen asiko ba'giña, bizi geran inguru auek nolakoak ziran irudimenaren bidez ikusiko genituzke.

Alde aurrez, zenbat epeetan edo alditan egiñak izan diran gaurko egunean ingurumari au osatzen duten ikuspegia kontuan izanik, Donosti'tik Irun'era dijoan bide-zabaletik asirik, Herrera'ri dagokion zatia, 1845'garren urtean eraiki zutenean, auzo au bi zatitan banatuta geratu zala ikusiko genuke; alde batetik, gaurko egunean San Luis enparantza dana, eta beste aldetik, denborakin "satorra" deitzen diogunaren burni-bidea izango zana.

Andik urte batzutara, 1864'garrenean, "Norte'ko tren" ibiltzen asi zenerako, arrizko zubi eder bat eta bere bi muturretatik burni-bideari lotzen duten bi bete-lanak egin bear izan ziran. Orretarako, asi "Julimasene" baserri paretik eta Ategorrieta'raiño egin zuten lubakia egiteko kendutako lurrez baliatuko ziran, ziur aski, eta, ain zuzen, egintza onek argitzen digu, "Peruenez-zaar" baserria, ipar aldetik, eta, bestaldetik, "Txingurri" sagardotegiaren atzeko aldean zegoan, aspaldi lurreratutako, "Errota-zaar" izeneko errota zergatik zeuden aipatutako bete-lanetik ain urbil. Zalantzarik gabe ortxe zeudelako burni-bidea egin baiño leenago.

Eskol-mutillak giñan garaian, San Luis plaza iruertzeko (triángulo) bat osatzen zuan plaza txiki bat zan, zugaitz batzuk zeuzkana, "Txingurri-erreka" eta San Luis ikastetxearen albotik, kamiotik jeisten zan bidearen tartean kokatua zegoana. Beerago, erreka zearkatzeko, arrizko zubi txiki bat zegoan, "Larratxo" aldera zijoan erri-bidearekin bat egiten zuana.

Gaurko egunean "Ongi-etorri" edaritegia dagon etxearen aurrekaldean arrizko erri-iturri bat zegoan, aspaldi xamar desagertu zana.

Errekaren eskubi aldean zingira txiki bat aurkitzen zan, eta itsas-gora biziak gertatzen ziranean, itsas-urak bertaratu egiten ziran. Zingira ertzean, "Erreka" izena zuan baserri zaar bat zegoan, baiña gure garaian iñor ez zan bizitzen bertan; utsa egoten zan.

Geroago, erreka estaldu, baserria lurreratu eta zingira lurrez estali ondoren, "Goi-zabal" etxea, "Peña'tarrena eta Sarriegi'ren biak eraiki zituztenean, eta, azkenik, eliza eta eskola osatzen zuten multzoa bota zutenean, San Luis enparantza gaurko egunean aurkitzen dan eran geratu zan.

Bestaldean, Gaiztarro-landa (finka), gaurko egunean zearo aldatua dagona, gure garaian "Artazcoz" izenez ezagutzen genuena, Sotomayor'ko Konde-dukearen lurrak ziran, Pasai'ko itsas-kolkoko urekin mugatzen zutenak. Ain zuzen ere, Donosti'tik Irun'era dijoan autopistatik Pasai San Pedro'ra dijoan bidearekin Lasa'ren etxeen inguruan alkartzen dan bide-zatia da, gutxi gora-beera, gaurko egunean muga.

Aipatutako bide-zati ontatik Herrera'ko kaia izenez ezagutzen dan kai-ertzeraiño, Pasai'ko portuarekin zer ikusia duten biltoki edo almagaznak kokatuak dauden lurraldea, Herrera'ko ubideari kendutako lurrak dira. Orretarako, Pasai San Pedro'ko kamio bazterrean, "Trintxerpe"tik asi eta "Azkuene" auzoraiño eraikiak dauden etxeak egiteko mendiari kendutako lurrez egiñak diran bete-lanak dira geienbatean. Bete-lana au egiteko, lenengo, "Txingurri" erreka urak jaso eta Pasai'ko portuko mendebaleko kai muturreraiño eramateko, San Luis enparantzarik asi-ta, arrizko erroil edo alkantarilla luze bat egin bear izan zuten. Bete-lana au bere osotasunean gure denboran bukatua izan zan, azken eitegia estaliz.

Eta era ortan gaurko eguneko ikuspegia osaturik, leenago aipatu ditugun eraikintza guziak, perretxikoak mendian gauetik goizera sortzen diran antzera bazter guztiak etxez ornituta daudelarik, asieran esan dugun bezala, "maketa", poliki-poliki, zatika-zatika askatzen asiko giñake, eta orretarako, lenengo, tren-zubia bere bi bete-lanekin kenduko genuke, urrena,



*"Herrerako zubia" 1908. Emailea: F. Garin.*



*"San Franzisko Xabieren erlikiak". Emailea: San Luis Parrokia.*

Herrera-erdi aldea bi zatitan banatzen duan bide-zabalaren zatia, geroago, errekarri, asi “Larratxo”tik eta San Luis plazaraifnoko estaldura kenduko genioke, eta, gure irudimenari lana egin eraziz, lurrez estalitako bete-lanak eta eraikitako guztia kendu ondoren, inguru au dana errekarbide (vaguada) zabal eta luze bat gertatuko litzake; alde batetik, “Larratxo” eta bestetik, “Fabrika” baserrietaraiño iritxiko litzakeena, erdi aldean ifnolako ostoporik gabe erreka bat igarotzen zan lekua, etxe eta baserri batzuk, an da emen banatuak zeudelarik, eta bestaldetik, inguruko lurak, oneraiño irixten zan itsas-adarraren erriberak edo ibai-bazterrak izango zirala konturatuko giñake, eta, oni buruz, “auzoko zaarrak” esaten zutenez, txitxardiñak edo angulak ere atzematen omen ziran alderdi ontan, Pasai’ko ur-kolkoaren beste ertzean dagon Errenderi’n bezala. Baita, entzun ere izan dugu inguru ontan ba-zala “enbarkadero” bat ere inguruetakoa ur-bazterrekoekin artu-emanetarako erabiltzen zana, legorrez ibiltzeko itsas-adar inguruan biderik ez zanean, eta baita, Herrera aldetik Lezo’raiño, inguru auetan ibiltzen ziran bidariak urez eramaten zituztenak izan zirala, “Pasai’ko batelariak” izeneko eleberria idazteko gaia eman ziotenak egilleari, ere.

Laburtuz, irudimenaren bidez eta 1760’garren urteko mapa baten laguntzaz oartu gindezke, gure arbasoak, lurralde ontako biztanleek, lantzen zituzten alorretatik jasotzen zuten uztaz gaiñera, ez zitzaieela paltako, ez arraiñik ezta eizarik ere, eta igali-zugaitzen emaitzak ere aukeran izango zituztela, guk, geok, gure gaztaroan inguru auetan ezagutu genituenak, eta oraingo bizimoduak sortzen ditun kezka eta buruausterik gabe, gozoki biziko zirala, egurats garbia arnastuz, zaratarik gabeko egoeran, eta naiz eta ez izan gaurko egunean edonorek etxean ditun erosotasunak eta aurrerapenak, ez zirala eguneroko janarien billa azokara joan bearrean izango, eta euren giroan murgildurik zoriontsu biziko zirala, zalantzarik gabe.

## **HERRERA ETXADIAREN ETORKIZUNA ALDATU ZUAN GERTAKARI TAMALGARRIA**

Milla bederatzireun eta zazpigarren urteko urrillaren 17’an auto istripu bat gertatu zan auzo ontan. Luis Zappino gidari zala, bere emaztea eta beste senditar batzuk zijoazten berebilla, bidezabalaren azpikoaldean kokatua zegoan, “Etxe-luze” izeneko baserriaren gaiñera amildu zalarik, gidaria eta 18 urteko bere illoba, neskatilla, auto berean zijoana, bertan illotzik gelditu ziran, eta ibilgailuan zijoazten besteak zaurituta gertatu ziran.

Gertakari onek auzotarren artean izugarrizko zirrara sortu zuan, eta, lenengoetakoa autoetakoa bat zala kontuan izanik, garai aietarako zerbait izugarria gertatu zan.

Ildakoen alargunak, Teresa Barkaiztegi andereak, “Etxe-luze” baserria eta bere lurak erosi egin zituan, senarra il zan leku berean, oroigarri bezala, elizatxo bat eraikitzeko.

Aipatutako elizatzxoarekin batera, apaiz-etxea eta azpikaldean bi ikas-gelako eskola bat eraiki zituan. Eliza, 1911’garren urtean bedeinkatua izan zan, eta eskola, Lasalle’tarren ardurapean, 1913/1914 urteko ikas-urtean asi zan irakasketan.

Auzoa aunditzen eta biztanlegoa ugaritzen zijoazelarik, 1927’gn. urtean, leenago egiña zegoan elizatzxoaren alboan beste eliza aundiago bat eraikia izan zan, eta andik bi urtera, 1929’garrenean, parroki izendatu zuten, Altxa’ko San Martzial parrokiaren mendepetik bereizturik.

Milla bederatzireun eta ogei ta zortzian, Santa Kolunba'ren gorpuzkiña Erroma'tik ekarri zuten, eta gaurko egunean eliza berriaren aldare azpian kokatua dago.

Asieran aipatu dugunez, ustegabeko ezbearraren ondorio bezala, Herrera'ko auzokideek, alde batetik leen ez zuten mutillentzako eskola lortu zuten, eta bestetik, eliza, denborakin parroki bihurturik, bataioetarako, ezkontzetarako, illetetarako eta era ortako eginkizunetarako ez zuten Altza'ra igo bear izaten, dana bertan egiñez.

Azkenik, eliza San Luis'eri eskaiñia izan zalarik auzotegiaren zaindari biurtu zan eta arrizko zubi ederrerrakin batera, Herrera etxadiaren ezaugarri biurtu dira.

## **HERRERA, BIDE-GURUTZE GARRANTZITSUA**

Milla zortzireun eta berrogei ta bostgarren urtean, bide-zabala egin zutenean -leenago errege-bidea Altza gaiñetik igarotzen zan-, eta 1888'garrenean, "Kaskarre" baserriaren azpiko aldean lurpeko-bidea edo tunela egin ondoren, Donosti'tik Errenderi'raño tranbia ibiltzen asi zanean, Altza aldeko eta "Guarda-plata" eta baita "Azkuene" auzotakoentzat ere, Herrera bide-gurutze garrantzitsua gertatu zan, bada, aipatutako lekuetan bizi ziranak, Herrera'tik Pasai'ra eta Errenderi'ra alde batetik eta Donosti'ra bestetik, tranbiaren bidez joateko aukera izaten zutelako.

Milla bederatzireun eta amairugarren urtean, "Frontera'ko tranbia", "Satorra" deitzen geniona ibiltzen asi zanean, Loiola'n Ernani'ko tranbiarekin eta Amara'n "Kostako trenarekin" alkartuz, Ernani aldera eta Bilbao'raño ere joan zitekeen, eta, geroago, 1925'garren urtean. "Urola'ko trena" eraiki zutenean, Urola ibarreko erri guztietara, leenago aipatutako lekuetan alkartuz, zuzenean joan zitekeen, eta beste aldetik, berriz, Irun'en alkarturik, baita Elizondo'raño ere, uri ontaraño trena ibiltzen asi zanean.

Milla bederatzireun eta berrogei ta seigarren urte inguruan, "Renfe" k bide-laburreko trenentzat Herrera'ko geltokia eraiki zuanean, Gipuzkoa guztira zuzenean joateko egokiera gertatu zitzaigun.

Garai aietarako bide-gurutze au oso garrantzitsua gertatzen zan, artean, gaurko egunean erriz-erri gure lurraldeko bazter guztietaraño irixten diran autobusak asi gabeak ziralako.

Azkenik, atzera begirada bat emanez, ibilgailluak bideetan zear ibiltzen ugaritzen zijoazelarik, 1931'garren urtean, Herrera'tik Altza'ra dijoan bidearen lenengo zatian burni-bidea zearkatzeko zegoan katezko-langa, orain geltokia dagon leku berean, kentzeko, bidea aldatu bearra gertatu zan, "el rincón" esaten genion zokoan barrena igarotzen zana. Orretarako, bide-zabaletik, Bar el Nido'ren ingurutik asi-ta, arrizko zubiaren lenengo zubi-begititik barrena, "Tantarrene" etxe parean leenagoko bide zatiarekin alkartuz, bide-zati berri bat egin bear izan zan. Eta oiñezkoentzat, burni-bidea zearkatzeko arrizko eskaillera batetik igotzen ziralarik, 1932'garren urtean, burni-bide azpitik lurpeko igarobide bat eraikia izan zan.

Asieran bide-gurutze egoki eta garrantzitsua izan zana, ta gaurko egunean ere ala dalarik, igarobide estuegia gertatzen da, eta naiko arazo larria da bideetaz arduratzen diranentzat. Era berean leku aipagarria zana, gaurko egunean zaratsua eta egurats-kutsatutako toki biurtua dago, etengabe ibilgailluak bertatik igarotzen diralako.

Azken batean, aurrerapenengatik ordaindu bearra dagon zerga edo zigorra da!



*"Jolastokieta" 1917. Emailea: Pikabea Alburna.*



*"Uholdeak San Luis Plazan" 1933. Emailea: Kutxa Fototeka.*

## **JOLASTOKIETA”, KIROLDEGIA**

Mende onen 16/17 garren urteetan, Herrera’ko arrobiaren, “Sastrearena” esaten genionaren inguruan, bete-lan batean, futbol- zelai bat eraikia izan zan eta aldi berean amalau kuadro luzean zituan pelota-leku bat ere bai. Pelota-lekuak atzealdean, aparte, “reboteko pareta” bat zuan, ain zuzen Altza’ko maldaren ertzean, orain, San Iñazio’ren galtzara izenez ezagutzen danarekin mugatzen zana.

Kiroldegi onek, “Jolastokieta, kirol elkarte”k egiña izan zanak, pelota-lekuaren ormari erantsita, bazkunaren egoitza zeukan; elkartekoen biltokia, etxe-zaintzarientzat bizi-lekua, eta, kirolarientzat, alda-gelak eta garbitasunerako bear ziran lekuak.

Diotenez, futbol-zelaiak albo batean egurrezko “tribuna” bat zeukan eta askunde edo naugurazioko jaialdian, Bilbao’ko atletik futbol taldekoek bertakoen aurka jokatu zuten.

Lenengotik jolas-leku irekia zan, eta ain zuzen, San Luis ikastetxeko ikasle giñanok, lenengo urteetan bertara igotzen giñan, “errekrotan” jolastera.

Geroago, bere jabetasuna aldatu zanean, esi-orma batekin inguratu zuten kiroldegi guztia, leku-itxi batean biurturik, naiz bee-maillako futbol taldeek txapelketetan noizik bein bertan jokatu.

Azkenik, olagintza edo industrializazioaren aroan, pelota-lekua kimika-ola biurtu zuten, eta futbol-zelaia zanaren lurretan, berriz, biltoki edo almatzen eta beste eta askotako olak kokatuak daude, eta asieran ezarri zioten “Jolastokieta” izena, bakarrik geratu zaio.

## **IKARAGARRIZKO UJOLDEA**

Txingurri erreka, Herrera’ko plazatik igarotzerakoan ubidetu eta estali zuten ezkeroztik, noizik bein gertatzen diran ekaitz gogorretan erasoak botatzen dituzten ur-pillak bideratu eziñik, ur-bideak estutu egin zizkiotelako, eta batez, ere, mareak itsas-gorakoak gertatzen baldin ba’dira, Pasai’ko porturairño egiña dagon tunelak ezin irentsi izaten duelarik, askotan, enparantzan eta inguruan dauden etxeetako lenengo bizitzarairño igo izan oi dira urak, baiña, 1933’go ekai-nillaren 16’an gertatutakoak, ondandiz gaiñera, iru gizaki, auzo ontan oso ezagunak ziranak, ito egin zituan.

Ezbearra era ontan gertatu zan: ekaitza gero ta gogorragoa gertatzen ari zalarik, eta ura erreka gaiñeratu eta goraka zijoala ikusirik, Nikolasa Elosegi, 53 urteko anderea, bera bizi zan etxearen, “Zubipe” edaritegia dagonaren, atzeko aldeko baratzen zeuden oilloak biltzera joan zan, eta zoritxarrez, “Jolastokieta”ko lurretan zegoan bete-lanak urak irentsi eziñik, berari eusten zion orma sendoa leertu egin zan, andrea azpian arturik.

Gertatutakoa ikusirik, arriazpian zegonaren senarra, Juan Jose Aranburu, 62 urtekoa, ogibidez kupelgillea zana, emaztearengana urbildu zan arri tartetik ateratzeko asmoz eta berdin alboko etxean bizi zan andre gazte bat ere, baiña, ezin izan zuten beren asmoa betetzerik, bada, auek ere, loi ta arri tartean murgildurik, bertan illotzik geratu ziran.

Ezbear onek ikaragarrizko zirrara sortu zuan auzotarren artean.

## GURE GARAIAN NOLA BIZITZEN ZAN HERRERA'N?

Gure bizimoduaren arabera, gutxi gora-beera beste lekuetan bezala, eramanpenez, garai aietan oi zanez.

Gure gurasoek, eurek lortu ezin izan zuten ikasketak guk lortu ahal izateko aalegiñak egiten saiatzen ziran, eta alor ontan herrertarrok adur onekoak gertatu giñan, bada, Lasalle'tarren ardurapean auzo ontan zegoan ikastetxean ezkontza on batez jabetu giñan.

Garai aietan, batez-beste, amabi, amairu, amalau urteraino eskolatzeko oitura izaten zan, sendi bakoitzaren bearraren edo egoeraren arabera.

Gaztediaren oiturak oso arruntak izaten ziran, geigikeririk ezin itxaro genuelako, langille sendietakoak giñala kontuan izanik.

Batetik bestera ibiltzeko ibilgailluz ongi ornituak geunden, tranbe txuria zala, naiz "satorra" esaten genionaren bidez, au da, erreztasun ugari genituela ibiltzeko.

Ibilgaillueri buruz, Herrera guzian bi sendi bakarrik izango ziran beren autoa zutenek, inguruko landetxe edo jauregietan bizi ziranak ezik, eta txirrinda zuten gazteek esku bateko beatzekin kontatu zitezkeen, naiz txirrinda batek geienez ere ogei ta amar duro balio izan.

Asteko egun guztiak, astelenetik larunbatera, lan-egunak izaten ziran, eta egunean zortzi ordu lana egiñez, lau goizetik eta beste lau arratsaldez. Artean urteko-oporketak, erabat ezarri gabek zeuden, estaduko langilleentzat ezik, eta ingeles-astea, au da larunbat arratsaldea jai, oso langille gutxik izaten zuten, eta arlo au bukatzeko, eskupeko edo gratifikazioak askoz geroztikakoak dira.

Milla bederatzireun eta ogeita amaikatik amaseira bitartean, "euskaldun" girokoak "Euzko-etxea" n biltzen giñan, ezpatadantza ikasiz eta negu aldian euskal antzerkiak antzestuz, antzeslariak geok izaten giñalarik.

Igandeetan, oiñez urbiltzen giñan "billeretara" auspo-soiñuakin dantzaldi batzuk egitera, bidean zeuden sagardotegietan sartu-aterak egiñez.

Orduan oitutzen ziran galtzak, "mendigoizale-galtzak" deitzen genienak, erabiltzen genitun, gaurko egunean "unai-galtzak" edo "vaqueroak" deitzen diotenak erabiltzen diran antzera.

Bakoitza bere giroaren arabera bizitzen zan eta oiturak oso arruntak ziran. Era ontan iritxi zan "Uztaillaren 18'a", naiz alderdi auetan urrengo egunean, 19'an, igandean, nabarmendu, eta ustegabeen arrapatu gindun, eta gertaera onek gure bizitzeko era eta beste gauza geiago ere zero aldatu egin zituan.

Ogei ta bat urtera irixtean soldautzara joan bear izate zan. Orduan, soldautza, batzuentzat sei illabetekoa, eta besteentzat, berriz, bederlatzi eta amabi illabetekoa izaten zan. Egun batetik bestera oso egoera larrian murgildurik aurkitu giñan, eta, egoera berezi ura bukatu zanean, ia 27 urte ba-genituan.

Oiturak eta beste gauza batzuk ere aldatu erazi egin zizkiguten, eta gerra ondorenean "estraperlo" izeneko "ustelkeria" ere sortu zan, elikatzeko bear-bearrezkoak ziran janariak,





*'Fidel Tolaretxipiri egindako omenaldia' 1926. Emailea: Pauli Tolaretxipi.*



*"Tranbiaren istripua" 1947. Emailea: San Luis Parrokia.*

“razionatuak” zeudenak, ixilka saltzen ziralarik. Emengo guda bukatu zanean, gauzak oso urri zeuden, eta denbora gutxira Europa’ko bigarren gudatea asi zanean kanpotik ezer ekartzetik ez zegolarik, gasolina eta erre-belarra edo tabakoa ere, jatekoak bezela, razionatuak zeuden.

Milla bederatzireun eta ogei ta amaseigarren urtetik berrogeigarrenera erruz garestitu ziran gauzak. Adibide bezala; guda aurrean litro ardoak, 60 xentimo balio zuanak, naiz ugari izan, litroa bost pezta balio izatera iritxi zan, eta, olioak, “razionatua”, leenago pezta bat eta larogei xentimo balio izaten zuana, ofizialki, zortzi peztan ematen zuten, eta ixilpean, “estraperloan”, berrogei eta geiago ere ordaindu bear izaten zuan bear zuanak, edo aal zuanak. Benetako “estraperlista” ez zan azkena saltzen zuana, baizik eta ezkutuan saltzeko, zegoan lekutik ateratzen zuana.

Eta lan-sariak bizimodua garestitu zan baiño askoz atzerago geratu ziran, eta orduan, bai, abestu zitekeela, “goizean porru-salda, eguerdian azak, aixa kabitzen dira ipurdian galtzak”. Izkirimiri bezala, esan dezakegu janariak neurtuta banatzen zituzten urte aietan, olioak ta koipe gauzak urri zeudenean, bati baiño geiagori sabela berdindu zitzaioala, eta baita urdailleko-miñez ibiltzen ziranei gaitza sendatu ere.

Garai aietan, mende ontako ogeigarren urteetan ezagutu genituan lenengo irratiak, galenazkoak ziranak. Egurrezko kutxatxo batean, kobrezko ariak bildurik zituztela, galena-arri batean orratza jarririk, teillatuetan jarritako antena baten bidez jasoaz, aurikular batzuekin entzuten zan. Geroago irrati aundiago eta ederrago batzuk azaldu ziran, lanpara aundi batzuekin, baiña aiek aberastasunaren ezaugarri gertatzen ziran, gaurko egunean, berriz, irrati bat ez duana txiro-txirotzat euki dezakegun bezala.

Orduko berri-banatzailleak, “E.A.J. 8, Igeldo mendian kokatua dagon Donosti-irratia”, bertakoek esaten zuten bezala, irrati-etxe bakarra zan, eta astean bein, asteazkenetan, nere uestez, ordu erdi bateko euskal-irratsaio bat eskaintzen zuten gauza berezia bezala, eta, ori, Eusko-Araudia edo Estatutua onartua zegolarik.

Eta izparringiak berriz, “La Voz de Guipúzcoa”, “El Pueblo Vasco” “La Constancia” eta “El Día”, azkenengo au Errepublikara garaian bakarrik argitaratu zan, ziran goizekoak, eta arratsaldekoak, “La Noticia” eta “La Prensa”, baiña ez ziran egunero erosten, garesti gertatzen ziralako, naiz ale bakoitzak amar xentimo bakarrik balio izan.

## ZINTZILIK GERATU ZAN TRANBIA

Tranbe istripu ikaragarri bat gertatu zan Herrera’n, 1947’ko azaroaren 18’an, eguerdiko amabiak aldera, egunero ibilgaillu auetan ibiltzen ziranen artean izugarritzko zirrara sortu zuelarik.

Errenderi aldera zijoan bi-zatik osatzen zuten tranbia, “Kaskarre” inguruan dagon tuneletik irteterakoan, malda bera asi zanean, trabak ezin eutsi ziola konturaturik gidaria, eta naiz eta bere aldetik aalegiñak egin, tranbia gero ta abiada aundiago artzen zijoala konturaturik, barruan zijoazten batzuk, larriturik, lurrera jauzi zituzten euren buruak, eta azkenik, Herrera’ko eliza inguruko biurgunera iritxi zanean, tranbia bere bidetik atera eta bide zabala zearkaturik eta beste aldeko tranbe-bidea ere pasa ondoren, biderean alboko pareta jota, tranbe zati bat bestearen gainean geratu zan, iru eriotz egiñez. Gidaria bee aldeko “satorra”ren bidean illotzik zegoan, eta

tranbe barruan zeuden, Josefa Zubizarreta, herretarra, eta Tolosar emakume bat, Pasai'ra zijoana, izan ziran bertan illotzik geratu ziranak.

Herrera'ko sendagai-denda edo botikan ogei bat zauritu sendatu zituzten, eta, beste ainbeste, Donosti'ko eri-etxeetara jasoak izan ziran, batzuk egoera larrian zeudenak.

Ezbearra gertatu eta bi egunera, beste zauritutako bat il zan; Josefa García anderea, au ere Herrera'n bizi zana.

Gertaera onek ikaragarritzko zarrastada sortu zuan ibilgaillu auetan egunero ibiltzen ziranen artean, batez ere, ezbearra zabaldu zuan izparringiak zionez, leenagoko egunetan eurek salatu izan zutela, "tranbiak ez zeudela ongi zainduak, eta, baita, bidari geiegi eramaten zituztela ordu batzuetan, ere".

## JAUSITAKO DORREA

Parroki-eliza eta San Luis ikastetxeak osatzen zuten multzoa, eraikia izan zanetik irurogei ta bat urtera, 1972'garren urteko dagonillean, lurreratu bearrean gertatu zan, ibilgailluak ugaritzen ari ziralarik, Donostia inguruko bide berria egin bear izan zutelako, ain zuzen, leku ontan alkartzen ziralako bide berria eta leengo bide-zabala.

Gertaera onek ikaragarritzko zirrara sortu zuan parroki ontako eliztarren artean, eurentzako zenbateraiñoko eragiña zuan kontuan izanik. Izan ere, eliza eta ikastetxeak osatzen zuten multzoa bost alditan egiña izan bai-zan; sortzaillaren laguntzaz, Gipuzkoa'ko Foru Aldundia'ren babesarekin, eta azkenik, eliztarren eta ikastetxeko gurasoen elkartearen diru-laguntzakin.


Iraulketa onek zarrazketa aundia sortu zuan eliztarren artean, eta, baita, bide berria eraikitzeko euren etxe-bizitzak eta baserri ta lurak utzi bear izan zituztenen artean ere, eta argazkietan ikus daitekenez elizako-dorreak ere, ainbeste urteetan tinko egondako lekuari gogor eutsi nai izan zion, baiña, azkenean, geiago ezin zuala ikusirik, zakar tartera bere burua jausi zuala ikusten da.

Geroztik, ikastetxea eta eliza, leku berriak prestatu bitartean aal zuten moduan eta lekuan moldatu ziralarik, San Luis ikastetxea Ulia mendiaren egalean, "Mendiola" baserriaren azpiko aldean kokatu zan, eta eliza, berriz, orain aurkitzen geran tokian, beste zerbaitetarako egiña izan zan areto eder batean.

## GARAI AIETAKO SAGARDOTEGIAK

Sagardoa, betidanik, gure artean oso arrera ona izan duan edaria da, baserri bakoitzean beren sagastietako sagarrekin egin oi izan dana.

Bi eratako sagardoa egiten zan baserrietan. Bata, purua, bear bezala irakin ondoren sagardo biurtzen zanean bonbilletan sartzan zana ospakizunetan edateko, eta, bestea, "pitarra" esaten zitzaiona, ura naastutako sagardoa, eguneroko edaria izaten zana. Beste mota batekoa ere egite zan, lurreratzen ziran lenengo sagarrekin egindakoa, "zizarra" deitzen zitzaiona, gozotan, irakin baiño leenago edaten zana. Au, litroa amar xentimon saltzen zan.



*"Eliza bota zuten eguna" 1972*

Sagardotegia, sagardoa litroka eta edontzi edo basoka saltzen zan lekuari esate zitzaien. Sagardoa, sortu zan upeletik zuzenean botelletara, naiz pitxarretara, naiz basoetara saltzen zalarik, bere salneurria, era ontakoa izaten zan; txopiña edo litro sagardoa erreal bat edo ogei ta bost xentimo, eta baso bakoitza bost xentimo.

Sagardoa saltzen zan toki geienetan, bolatoki eta toka-jokoak egoten ziran, jolasteko izanez gaiñera, taldeka jokatzuz, erronda nork ordaindu izaten zalarik elburua.

Gaurko egunean, gauzak asko aldatu diralarik, ezingo litzake orduko sagardotegirik zabalik euki; au da, areto bat ortarako prestatua eta bertan langille bat eukiz.

Eta sagardogintzak zenbateraiñoko garrantzia zuan garai aietan, emen, inguru ontan, orain gauden leku onen biran, 300/400 metroren barruan, sagardoa salgai eukitzen zuten sagardotegien izen-zerrenda bat egingo dugu.

Gauden lekuaren iparraldetik asi-ta, lenengoa, "Urarte" izena zuan etxean, Lasa etxeak dauden inguruan, mendi aldera igoaz, beste bat, "Guarda-Plata"’n, gorago, "Mendiola" baserrian, eta ezkerretara joaz, "Labeas" baserrian, beerago "Mirakruz"’en, "Parada" etxean eta "Txiskuene"’n, bidea zabaltzeko bota zuten etxean. Herrera aldera abiatuz, "Maxopene", Matxain'darrena, bere aurrean, Kontadore-ola egiteko botatako "Ernabiro" baserrian eta onen atzeko aldean, "Monea" baserrian, gaurko egunean Kultur-etxe biurtua dagon etxean. Bide-zabalari jarraituz, "Bar Feli" dagon lekuan sagardotegi bat, beerago, kale ortako 118'garrenean, "Pertika" izenez ezagutzen zana, aurrerago "Bigotexena", eta 135'garrenean, "Patraman" izenez ezagutzen zana, Uzi'tarrena.

Bestaldean, "apeaderoaren" aurrekaldean, "Tantarrene", Sarriegi'ren sagardotegia, bee aldean, San Luis enparantzan sagardotegi bat eta atzeko-aldean, "Peruene zaar" eta "Peruene-berri", bi sagardotegi, eta, azkenik burni-bidearen beste aldean, "Txingurri" eta goraxego, "Julimasene" baserrietan, beste bi.

Guztira, 19 sagardotegi. Taberna baiño sagardotegi geiago.

Altza aldean ere ba-ziran oso sonatuak ziran sagardotegiak, baiña, aipagarriena, zera da: Herrera'n, langille jendea bizi zan lekuan kokatuak zeudela geienak, eta orrek, nere iritxi apalean, beko-maillakoen edaria zala adierazten du.